

# noaua

**Kabien aritzeko beka bat antolatu du Udalak**

**Etxebeste kalea urbanizatzen hasi dira**

**Zumarte Musika Eskolako lekualdatzea egun bakar batean egin zen**



**Narciso Arrillaga, Zubietako alkate berria:**

**“Zubieta errespetu gutxirekin tratatu duzue”**

# Mauricio



943 373 613

**IRAILAREN 26TIK URRIAREN 4RA**  
Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.



*FINKA ADMINISTRATZAILEA*

*AHOLKULARITZA ZERBITZUA*

*INMOBILIARIA*

*ASEGURUAK*

**943 573 693**

*Baxoalde 4 behe, ORIO*



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**943 36 46 00**

**www.lhusurbil.eus**

## **Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduak**

Administrazioa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia  
Produktzio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**MATRIKULAZIOA** uztailaren 13tik 19ra



## Albiste iruditzen

# Etxebesteko urbanizatze lanak, abian

Iaz eginiko irazu kaleko lanen segida da Etxebeste eta Hirutasuna kaleetan martxan den obra. Iraila amaierarako amaitzea espero du Udalak. 259.755 euro bideratuko dituzte lanotara. Irigarritasun eta segurtasun arazoak konpondu nahi dira lanok. Horretarako, harri galtzadak sor ditzakeen oztopoak arinduko dira, "orain artean dauden harri berberak ebakiz, leunduz eta berrerabiliz", eta honenbestez, egungo izaera mantentzen ahalginduz.



Lanak iraila amaierarako amaitzea espero du Udalak.

## Laburrean

### 1958an jaiotako bazkaria

Irailaren 9rako antolatu dute otordua, arratsaldeko 14:00etan Antxeta jatetxean. Bazkaritarako izena, irailaren 3a baino lehen eman behar da. 50 euroko ordainketa egin behar da Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0140 331400030840.

### Freskagarriak 2017ko gida, Kabiennen egina

#Freskagarriak2017 Buruntzaldeko liburutegien gida da. Liburuxkaren diseinua Carola Girauda Olaviagak egin du. "Kabiennen bere txokoa egina duen herritarra", Sutegi Udal Liburutegitik aditzera eman digutenez.

### GuraSOS, Madrileko Senatura

Asteazken honetarako, uztailearen 12rako agerraldia deitua zuen GuraSOSek Madrileko Senatuan. Erraustegiaren finantzazioaren iruzur salaketari buruzko agerraldi topaketa hain zuzen, alderdi politiko, diputatu, senatari eta hedabideekin.

# noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

## Hesiak jartzen?

Urte biz behin Iruñeko Artzapezpikuak eta Euskal Herriko elizbarrutietako Gotzainek Karta Pastoral bat argitaratzen dute; aurtengoa Mendekoste egunean zabaldu zuten (ekainaren 4a) eta ez Garizuman edo Pazko inguruan ohi den bezala. 15. salmotic hartu dago izenburua: “biziaren bidea erakutsiko didazu”. Testu ederra da oro har.

Heziketaz eta giza baloreen transmisioaz hitz egiten du batez ere; bidegurutze denbora berri batean gaudela diote.

Bi alderdi baikor edo positibo azpimarratuko nituzke:

a- Heziketaren helburua zera da: “anaitasunezko eta zuzentasunezko gizarte bat eraikitzea. Hezten ari garenari erakutsi behar diogu errealitatearen aurrean harri duraz jokatzeko, gizatasunez bizitzen, pertsona libreak, helduak, kritikoak, sormenezkoak izaten, gizarte berri bat sortzeko gaitasunez jantziak izaten”. Hobeto ez dago adierazterik.

b- Jesus nazaretarrari eskaintzen dio atal luze bat, “atinado” Joxe Arregik dioen

bezala, hau da, bete-betea asmatzen duena arlo historikoan eta baita espiritualetan ere. Bere gizatasuna nabarmentzen dute: “librea eta liberatzailea, ausarta, berritzailea”.

Karismaz betetako maisua, ez instituzionala, oso kritikoa lege zaharrarekin eta bere garaikoa lider erlijiosoekin. Aberatsen aberastasan dakarren itsumena, krudeltasuna eta heriotza salatu zuen. Pedagogia aldetik benetako iraultza egin zuen txiroei eta zauritu mota guztiei lehentasuna emanez. Bere eskola ez zegoen tenpluan, bideetan eta plazetan baizik, denei irekia: puruei nahiz ezpuruei, bekatariei eta bekatarien lagun agertu zen, hau da, garai hartako baztertuen adiskide. Bere jarraitzaileen artean emakumezkoek rol garrantzitsua izan zuten Berri Ona zabaltze lanetan. Jesusen gizatasunaren adierazpen perfektua da gotzainena.

Ikuspegi ezkor samarrak ere badago karta horretan:

a-Nik ez dakit zergatik dien horrenbesteko beldurra agertzen ari diren espiritualitate eta gogoeta teknika berriei,

hots, yogari, reikiri eta abarrei. Zeren erlijioarekiko omen dagoen axolagabetasunez abisatzeaz gain, jakinarazten digute ondo bereizi eta aztertu behar direla yoga, zen eta ekialdeko gogoeta teknikak sinkretismo kaltegarri batean eror ez gaitzen. Pastoral gogoeta horren alderdi ezkorra hauxe jarriko nuke. Badirudi erlijio eta espiritualtasun teknika mailan egia kristauok bakarrik daukagula.

Yoga hitzak batasuna, konunioa esan nahi du. Metodo, diziplina eta bizitza filosofia da yoga, ondo uztartua alderdi fisiko, mental eta espiritualetan, oso estimatua hinduismoan, budismoan eta jainismoan. Erlijio hauek kristau erlijioa bezain errespetagarriak dira zalantzarik gabe. Mugak eta hesiak jartzen ari gara beste praktiak eta metodoak gutxietsi edo gaitzesten ditugun neurrian. M.Scorseseren “silencio” pelikula ikusi nuen duela aste batzuk. Budista batek esaten zien taldeei: “zergatik egiten ditugu bando ezberdinak konpartitzeko hainbeste daukagun bitartean?” Nik galdetuko nuke ea zergatik gure

gotzainek markatzen dituzte distantzia absurduak kredoaren artean?

b-Eta azkenik. “Hemos de dar a la asignatura de Religión la relevancia y profundidad que requiere”, diote. Konforme, baina ez inor konfesio jakin bateko kide bihurtzeko. Gure gotzainen ustez erlijio katolikoa irakatsi behar da eskoletan, baina eskuliburuak eta irakasleak beraiek kontrolatuta eta jarrit. Ez al dira konturatzen gizarte anitz eta laiko batean jarrera horrek ez duela zentzurik? On litzateke eskolan erlijioaren historia edo fenomenologia irakastea. Nire uste apalean eta lehen ere idatzi nuen foro honetan, erlijioaren klaseak helburu bikoitza du: kultura erlijioa ahalik eta zabalena ematea eta gatzetxoak eta gazteak tolerantzian hezteak.

Dalai Lamari galdetu zion Leonardo Boff teologo ospetsuak ea zein zen erlijiorik onena. Erantzuna: “zuri pertsona ona izaten laguntzen dizun hura”. Gotzain laukotea: gure gizarteak bihotz irekiak behar ditu eta ez blindatuak.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Matrikulazioa Lanbide Heziketan

Uztailaren 13tik 19ra, bi egunok barne, ordutegi honetan:

- Astelehenetik ostegunera, 08:30-14:30/ 16:00-18:00.
- Ostiraletan, 9:00-14:00 ar-

tean. 2017-18 ikasturterako honako hezkuntza eskaintza dute: elektrizitatea eta elektronika, mantenua eta energia, administrazioa eta fabri-

kazio mekanikoa.

### Informazio gehiagorako:

943 36 46 00  
lhusurbil.eus  
eskola@lhusurbil.eus

### Ikuskapena Aginagan

Uztailaren 6an, polizia espainiarra Aginagako piper ekoizpen eremuetako batera bertaratu zen. Bertan lanean ari zirenen lan kontratuak ikuskatzen aritu ei zen.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 21. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 17.

# Kabiienen egonaldi bat egiteko beka deialdia antolatu du Udalak

**E**kainaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldiako, ekintzaileei zuzenduriko Hasiz Hasi Beka deialdiko oinarriak onartu zituen. Interesdunek irailaren 30era arteko epea dute eskabideak aurkezteko.

## Xehetasunak

■ Xedea: “Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari. Beterri-ekin zerbizutik tutorizazio bat emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio. Beterri Buruntza Elkarlan espazioa projektuan sortzen den sarean ere kokatzen da proiektu hau, Kabieneren parte-hartzea-



Bekaren zenbatekoa: “Gehieneko zenbatekoa 1.089,00 eurokoa izango da, beti ere 12 hilabetetako egonaldia izaten badu Kabiienen”. Argazkia inaugurazio ekitaldiko da.

## BEKA DEIALDIA

**“Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean”**

ren eskutik”.

■ Eskerak aurkeztea: irailaren 30era arte.

■ Bekaren zenbatekoa: “gehieneko zenbatekoa 1.089,00 eurokoa izango da, beti ere 12 hilabetetako egonaldia izaten badu Kabiienen”.

■ Ordaintzeko modua: “Bi zatitan ordainduko da beka: Lehenengo % 80a ebazpena ematen denean eta bigarrena berriz, % 20, 12. artikuluan zehazten den memoria aurkezten denean eta baita ere Kabieneko egonaldiari dagozkion faktura agiriak”.

■ Onuradunak: “Beterri-Buruntza eskualdeko udalerriren batean erroldatuta dauden pertsonak, udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena dutenak, ekonomi jardueren gaineko zergan alta emanda ez daudenak edo gehienez ere

2017. urtean alta eman berri dutenak, baldin eta bideragarria den negozio plana egina badu Beterri-Buruntza eskualdeko ekintzaileak zerbiztuzan”.

■ Onuradunen betebeharrak:  
-Adinez nagusia izatea.  
-Beterri-Buruntza eskualdeko udalerritakoren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) erroldatua egotea.  
-Usurbilgo Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea.  
-Usurbilgo Udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea.  
-Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan alta emanda ez egotea edo gehienez ere 2017. urtean alta eman dutenak, eta norberaren kabuz ekonomia jardura bat gauzatzen ez aritzea. Garatzen ari diren proiektuak baino ezingo dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita. Informazio gehiago: uztailaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

## Ika-mika

# Erraustegiaren aurkako gose grebaren digestioa

Jada pasa dira aste batzuk sei herritar gipuzkoarrok Donostiako Easo plazan erraustegiaren gezur handiaren aurkako gose greba bukatu genuenetik. Gure lanak, familiak eta etxeak utzi eta astebetetz aire garbia eta osasunerako eskubidea aldarrikatu dugu.

Izan ere nazioarteko ikerketa zientifikoek diotenez, hainbat osasun arazo eta minbizi motek nabarmen egiten dute gora bereziki erraustegitik 20 kilometroren bueltan. Esaterako garuneko minbiziak bikoiztu egiten dira, hezurretakoak eta malfor-

mazio kongenitoak hirukoiztu. Heriotzak %13 inguru gehitu ohi dira. Kaltea handiagoa da haurrengan. Lurra eta gure ondorengoak kaltetzeaz gain, 35 urterako zorrera kondenatu nahi gaituzte.

Hau bereziki larria da egitasmo hau ekiditeko alternatiba badagoelako. Askoz lanpostu gehiago sortzeaz gain, nabarmen merkeagoa eta osasuntsuagoa da eta Europatik datozen irizpideekin ere bat dator. Gipuzkoan gainera urrats garrantzitsuak eman dira bide horretan.

Datu hauek guztiak eta ge-

hiago esku artean izanda, nola liteke erraustegiaren egitasmoarekin jarraitu? Erraustegia eginez gero diru publiko izugarri jasoko duten gutxi horietatik gobernatzaren duten politikariak ote ditugu Foru Aldundian? Ez al lukete guztion onurarako aritu behar?

Pozgarria izan da hainbeste jenderen babesa jasotzea. Herritar askorekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta berriro ere ikusi dugu informatua dagoen herritarrek ez duela erraustegirik nahi, gutxiago etxe ondoan. Baina hau Foru

Aldundiko agintariak ere badaukite, horregatik ari dira etenik gabe, informazioa ezkututzen eta aurkako protestak isiltzen.

Agintari hauek herritarrek etsitzea nahi eta espero dute. Oker daude, gu guztion eskubideen alde ari gara eta ez dugu hain erraz etsiko. Besarkada eta animo handiak guztientzat. Zubietako erraustegia gelditu!

**Irantzu Jauregi, Iñaki Armendariz, Teresa López de Munain, Kepa Olaiz, Aran Garmendia, Mila Zabalo. Erraustegiaren Aurkako Easo Plazako Gose Grebalariaik.**

# Merkataritza lokal huts batean jarduera ekonomiko berri bat abiatzeko udal laguntza deialdia

**E**kintzailea izan eta Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat jarri nahi duenak, udal diru-laguntza deialdira aurkeztu daiteke urriaren 31ra arte.

## Diru-laguntza deialdia

■ **Xedea:** Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzaileari lokalaren alokairuan laguntzera bideratuko dira diru-laguntza hauek.

■ **Lehentasuna** izango dute: "herri gunean nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek. Ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek".

■ **Eskabideak:** urriaren 31ra



Dirulaguntza deialdira aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da.

arte aurkeztu daitezke udal erregistroan.

■ **Emango den laguntzaren zenbatekoa:**

Gehienez ere lehenengo bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira:

-Lehenengo urtean alokairu

gastuaren % 40a, gehienez ere 300 euro hilean.

-Bigarren urtean alokairu gastuaren % 30a, gehienez ere 200 euro hilean.

## Baldintzak:

■ **Jarduera mota:** txikikazko

herri merkataritzako jarduerak izatea, azken bezeroarekin edo herritarrekin harreman zuzena dutenak; pertsonen zuzendutako zerbitzuak; jarduera komertziala izanik, kale eta eremu jakin batean biziberritze ekonomiko eta sozialeko lagungarria izango dena kontsideratzen den bestelako edozein jarduera.

■ **Ekintzaile eta enpresa proiektuaren ezaugarriak:** jarduera garatu ahal izateko lokalik jabetzan ez izatea; jarduera garatzeko hutsik dagoen Usurbilgo merkataritza lokal bat alokairuan hartzea; enpresaren langile kopurua gehienez ere 5 izatea...

## Informazio gehiago:

Uztaillaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

# Zumarteko mudantza, egun bakar batean

**L**anak bi egunetan gauzatzea aurreikusten zuten arren, azkenean jaso duten laguntza bikainari esker, egun bakar batean amaitu dituzte lanak. Zumarte Musika Eskolako buruz gara. Dakizuenez, hurrengo bi ikasturteotan, 2017-18 eta 2018-19 ikasturteetan, handitu eta eraberritzera doaz eraikina.

Lanak bideratu ahal izateko, behin behinean Usurbilgo beste gune batzuetan bilduko dira musikariak; Udarregi Ikastolaren DBH-ren eraikin gorrian eta Agerialden, Santueneko frontoiko lokalean eta Puntapax kalean kokatua dagoen Atez Ateko Informazio Bulego ohian.

Gune guztietara lekuz alda-



Lekualdatze lanak uztaillaren 5 eta 6an bideratzekoak ziren. Jaso zuten laguntzari esker, egun bakar batean hasi eta bukatu zituzten.

Argazkia: Zumarte.

tzeko mudantza lanak uztaillaren 5 eta 6an bideratzekoak ziren. Jaso duten laguntzari esker ordea, egun bakar batean, hasi eta bukatu zituzten, materiala Villa Pilarretik

hurrengo bi urteetako behin behineko egoitzetara garraiatzeko zereginak. Zumartetik eskerrak eman nahi dizkiete, lanotan laguntzera hurbildutako guztiei. Bai, ikasleei,

gurasoei, Zumarte kideei, Udalarri, brigadari edota DIA saltokiari.

Zama lanak amaituta, behin behineko guneak txukundu eta egokituko dituzte ikasturte berrirako. 2017-18 denboraldia, irailaren 7an abiatuko du Zumarte Musika Eskolak. Pop rock taldeak, gitarra edota perkusio ikasleak Santueneko frontoiko lokalean bilduko dira. Gainerakoak, Udarregi Ikastolako LH eta DBH-ko eraikinetan. Hartuemanetarako egoitza berriz, Puntapax kaleko garai bateko Atez Ateko Informazio Bulegoan izango da. Aipatu, aurrerantzean ere Musika Eskolarekin hartuemanetan jartzeko bideak orain arteko berak izango dira.

# Joxe Ramon Furundarena, Osagaiz aldizkari berriaren zuzendaria

Osasun arloko euskal komunitate zientifikoak eginiko aurkuntza zientifikoaren transferentzia-tresna izan asmoz sortu dute Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) Osagaiz, osasun zientziei buruzko artikuluzientifikoak argitaratzeko eta ikerketa taldeen lanak ezagutzera emateko aldizkari elektronikoa.

Joxe Ramon Furundarena usurbildarrak zuzentzen du aldizkari berria. Medikua da bera, hematologia eta hemoterapian espezializatua dago, eta EHuko irakaslea ere bada. Lehen zenbakiko editoriala berak idatzitakoa da. Proiektu berriari buruz mintzatu da. “Osasun-arloarekin lotutako aldizkari zientifiko baten beharraz jakitun ginen aspalditik, baina ez genuen une egokirik ikusten, gutxi ginela iruditzen zitzaigulako, formazioa falta zitzaigulako, erronka handiegia iruditzen zitzaigulako... baina azkenean zezenari adarretatik heltzea pentsatu dugu eta OEEren eta UEUren lankidetzari esker jaio da OSAGAIZ, Euskal Herriko osasun-zientzien aldizkari berria”, berri eman du Furundarenak.

Mediku usurbildarraren esanetan, “ilusio handiz ekiten diogu aldizkari berri honi, aurrekoek egindako bidea osatzeko asmoz eta osasun-arloan



Joxe Ramon Furundarena medikua da, hematologia eta hemoterapian espezializatua dago, eta EHuko irakaslea ere bada. Eskubitik hasita bigarrena da Furundarena. Argazkia: UEU.

## JOXE RAMON FURUNDARENA

**“Ilusio handiz ekiten diogu aldizkari berri honi, aurrekoek egindako bidea osatzeko asmoz eta osasun-arloan euskarak behar duen arnasari aire berria emateko”**

euskarak behar duen arnasari aire berria emateko”.

## Lanak partekatze deia

Aldizkaria jatorrizko artikuluekin osatu nahi dute, “eta horretarako, guztioi dei egiten dizuegu espezialitate ezber-

dinetako lanak bidaltzeko eta denekin konpartitzeko. Gure asmoa ez da punta-puntako ikerlanak argitaratzea, baizik eta edozein espezialitatetakoek ondo ulertuko dituzten lanak plazaratzea. Biltzarretara aurkezten dituzuen lan horiek zertxobait gehiago landu eta bidali aldizkarira, ziur denon interesekoak izango direla. Aldizkarian argitaratuko ditugu, halaber, osasunaren eremuarekin lotura duten gai interesgarrien berrikuspenak, beste aldizkarietan alea argitaratutako artikuluzientifikoak, farmakoei buruzko informazioa, liburu-zainen aholkuak eta euskarari lotutako informazio interesga-

ria. Argitaratutakoak egile-eskubideak izango ditu”.

## Sarean, irakurgai

Oraingoz, urtean bi zenbaki argitaratzeko asmoa dute. Sarean sortu duten osagaiz.eus atarian zintzilikatuko dituzte pdf formatuan. Doan irakurri ahalko da. Lehen zenbakiak, Furundarenaren editorialaz gain, osasun zientziei loturiko artikuluzientifiko interesgarri askoak dakartza; droga berriak merkatu berritzailean, urtebete baino gutxiagoko haurrengan agertutako nerbio-sistema zentralako tumoreak, listeria, medikamendu informazioa... Aldizkari honen lehen zenbakia irakurgai duzue osagaiz.eus atarian.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**Amonaren lapikoa dastatu nahi baduzu...**  
**Gure Elkarte**  
 ~ Santuenea ~  
 Eguneko platera 6€ - Eramateko aukera! Deitu: 686 55 41 45

# Aste honetan, UEUren jardunaldia



Plaza guztiak bete egin dira. Hala ere, Berriaren web orriak zuzenean eskainiko du jardunaldia.

“Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua” jardunaldia antolatu dute Usurbilgo Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eta Jakin Fundazioak ostegun eta ostiral honetarako, uztailaren 13 eta 14rako Usurbilen, hiru erakundeok datozen hiru urteotarako martxo amaieran sinatu zuten elkarlanerako

hitzarmenaren baitan.

Usurbilgoa, UEUren udako ikastaroen baitan ospatuko den Jakin Jardunaldia izango dugu. 12 aditu eta aritu bilduko ditu hitzorduak. Euskara, generoa, jatorria eta klasea, lau esparru hauen arteko talka eta elkarguneak aztertuko dira. Ikastaroaz gain, kultur programazio zabalarekin osatuko da jardunaldia.

## Saretik jarraitzeko aukera

Oso arrakastatsua suertatu da, jada itxita dagoen matrikulazio epea. Hainbestera, aurreikusitakoa baino areto handiagoan ospatu dela azkenean jardunaldia, Udarregi Ikastolako jangelan hain zuzen. Berriak zuzenean emango du jardunaldia bere web orrialdean: [berria.eus](http://berria.eus).

## UEMAren berripapera kalean da

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) urtean bitan argitaratu ohi duen Berripapera plazaratu berri du. UEMAKo kide diren udalerrietako etxeetara banatuko da, tartean Usurbilgo herritarren artean. Zenbaki berri honek, euskara turismo eskaintzaren erdigunean jartzeko UEMAK eta erakunde honetako kideek abiatutako kanpaina, udazkenean izango diren udaleri euskaldunetako gazteen topaketen inguruko kontuak, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko tresna berritua, edota udaleri euskaldunei buruzko kontu laburragoak biltzen ditu. Informazio gehiago: [uema.eus](http://uema.eus)



# Azken NOAUA! aldizkaria, uztailaren 21ean

Esku artean duzuen aldizkari hau oporraldiko azken aurreko NOAUA! duzue. Astebete barru, uztailaren 21ean argitaratuko dugu azkena. Opor osteko lehen astekaria berriz, irailaren 8an.

Ohar edo zorion agurrik baduzue, helarazi [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

[noaua.eus](http://noaua.eus) helbidera hilaren 18a baino lehen.

## Bazkietza kibraketa

Uztailaren 15ean hasiko gara NOAUA!ko bazkietza kibraketa. Iazko kopuru bera, 40 euro kostako da. Gogoan izan, Errenta Aitorpenerako 12

euroko hobaria jasoko duzue hurrengo urtean. Bazkietza banku bidez egitea baimendu bagaituzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere. Ordainketa eskuz egiteko ohitura duenak, bi modu ditu; NOAUA!ko egotzara dirua ekarrita edo kontu zenbaki honetan sartuta: ES03

3008 0259 11 3086496928 (Rural Kutxa). Azken urtean, zure datu pertsonaletan aldaketarik egon bada, guri ahalik eta azkarren jakinaraztea eskertuko genizuke.

Informazio edo argibide gehiagorako: 943 360 321 [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Patxi**  
Patriaren  
Jaietxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**ALDAMU**

KONPONKETAK

KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



# Zubietak alkate berria du

**N**arciso Arrillaga izango da hurrengo bi urteotan, 2017-19 tartean, Zubietako alkate berria. Uztailaren 9an hartu zuen kargua, Kaxkapen ospaturiko ekitaldian. Bertan izan ziren Zubietako Herri Batzarreko gainerako kideak, tartean noski, 2015eko udal hauteskundeetan ostetik alkatetzan izan den Joxe Mari Zubimendi bera. Eta haiekin, Usurbil eta Donostiako alkateak, Xabier Arregi eta Eneko Goia hurrenez hurren.

## Legegintzaldia ere erdibitua

Dakizuenek, Zubietako, administratiboki bi udalerrien artean erdibitua egon arren, erakunde propioa du; Usurbil zein Donostiako lurretan bizi diren zubietarren ordezkariak osaturiko Herri Batzarra. Administratiboki herria bera bezala, lau urteko legegintzaldia ere bitan zatitua du Zubietak. Lehen bi urteetan Usurbil aldetik 2015eko udal hauteskundeetara aurkezturiko hiru hautagaieetatik bozkatuena izan dute alkate; Joxe Mari Zubimendi.



Erdian da Narciso Arrillaga. 2019ko udaberrira arte, bera izango da Zubietako alkate.

Hurrengo bi urteotan, 2015eko udal hauteskunde haietara Donostia aldetik aurkezturiko beste hiru hautagaieetatik zubietarren boto gehien jaso zituena; Narciso Arrillaga. Ondoko irudian dituzue, aipatu duela bi urteko bozketa haietan udalerrri bakoitzetik

aurkeztu ziren hiruna hautagaiak. Sei kideok, Usurbil eta Donostia aldeko hiruna ordezkariok osatzen dute egun, Zubietako Herri Batzarra:

### Usurbil aldeko herri batzarkideak:

■ Aizpea Aizpurua Arroyo.

■ Itziar Basterrika Unanue.

■ Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta.

### Donostia aldeko herri batzarkideak:

■ Narciso Arrillaga Balda.

■ Mikel Bengoetxea Iparragirre.

■ Fernando Iturralde Zabala.

## Errausketaren aurkako oihu eta banderola artean

Modu batean nahiz bestean, pil-pilean den gai honi zuzenean edo zeharka erreferentzia egin zioten bertaratu ziren ordezkari politikoei, Donostiako alkate Eneko Goiak izan ezik. Ondoko irudietan ikus dezakezuen moduan agurtu zuten hiriburuko alkate eta garai bateko Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen diputatu ohia, zubietarren errausketaren aurkako oihu eta banderola artean.

### Bidea erdi zabalik

Erraustegirako gasa sartze-



ko lanetan dihardute Santuena Zubietarekin lotzen duen Learritza bidean. Gogoan izan, uztailaren 3an inolako

jakinazpenik gabe itxi zuten Learritza pasealekuko bide zati hau, Ameri inguruan. Lanak geldiaraztea eskatua dute

herritarrek, Zubietako Herri Batzarreko eta Usurbilgo Udalak, "hiru erakundeek (Usurbilgo eta Donostiako Udalak eta Zubietako Herri Batzarra) arteko irtenbide egokia adostu eta guztiaren berri herritarrei jakinarazi arte".

### Ibilgailuentzat itxita egongo da irailaren 3ra arte

Azken egunotan jakitera eman denez, oinezko zein bizikleta erabiltzaileentzat zabalik dago bide zati hau. Ibilgailuentzat itxita izango da gutxienik irailaren 3ra arte.

# “Zubieta oso errespetu gutxirekin tratatu duzue, edo batere gabe”

Hala adierazi zuen Narciso Arrillaga Zubietako alkate izendatu berriak, uztailaren 9an Kaxkapen ospaturiko kargu hartze ekitaldian. Hitza hartu zuten azken bi urteotan kargu berean egon den zubietar Joxe Mari Zubimendik, baita Usurbil eta Donostiako alkateek ere; Xabier Arregik eta Eneko Goiak hurrenez hurren.

## Joxe Mari Zubimendi:

**“Errebindikazioa oso argia da”** Usurbilgo eta Donostiako alkateak ekitaldira etorri izana eskertu zuen Zubimendik, “herri batzarraren izaera azpimarratu eta indartzen dugulako”. Erraustegiaren aurkako banderolak eskutan zituzten ekitaldira gerturaturiko herritarrei ere aipamena egin nahi izan zien. Zubimendik duela bi urte alkate kargua ere erraustegiaren aurkako aldarrikapen artean hartu zuela oroitu zuen. “Errebindikazioa oso argia da.



Txalo artean agurtu zuten Joxe Mari Zubimendi, eta txalo artean hartu zuten Narciso Arrillaga, alkate berria.

Ulertu behar duenak ulertuko du”, adierazi zuen.

Bi urteotako errepasso azkarra eginez, gai arantzatsu askori eta inposaketei aurre egin beharrean aurkitu direla

adierazi zuen. Batzarkideentzako hitzak ere izan zituen. “Beti taldean aritu gara sei herri batzarkideok, Zubietan ordezkaritza garbia osatu dugu”, zioen.

Uztear zuen alkate karguari buruz aipatu zuen, “saiatu naizela ahalik eta alkatetza finena, objektiboena, zintzoena egiten”. Txalo artean agurtu zuten zubietarrek.

## “Denok adostasun batera helduz gero, lorpen handia izango da”

Ofiziotzat duen abeltzaintza eta datozen bi urteotako alkatetza kargua parekatu zituen Narciso Arrillagak, eta Zubieta jasotzen ari den tratuari ezinhobeto lotu zuen bere diskurtsoa.

“Abeltzain bezala, urte askoan ikusi dut bere aziendari errespeturik ez diotenak eta hori oso itsusia da. Aziendari errespeturik ez dion abeltzaina, gaizki. Abeltzaina traketza da bere aziendari ez badio zainketa bereziko egun bat

### NARCISO ARRILLAGA

**2019ra arteko helburua:**  
**“Errespetuz saiatzen lortzea eta konturatzea zuek zer jartzen ari zareten Zubietan eta zer ateratzen den Zubietatik”**

ematen, zama handia jartzen dion behorrari, edo esne asko ematen duen behiari. Neure ustez, hor du parekotasuna abeltzainak eta alkatetzak”, zioen. Ildo horretatik, Zubietak

jasotako tratua kritikatu zuen. “Horregatik diotsuet, Zubieta oso errespetu gutxirekin tratatu duzuela, edo batere gabe. Ez duzue kontuan ze zama jartzen ari zareten Zubietan behorrari, eta ezta ere kontuan ez zarete hartzen ari, Zubieta herriak zenbat esne ematen duen”, adierazi zuen argi asko.

### Bazkari bat, “telefonorik eta agendarik gabe”

Testuinguru honetan, helburu nagusi bat finkatu du 2019ra arteko tarte honetan. “Erres-

petuz saiatzen lortzea eta konturatzea zuek zer jartzen ari zareten Zubietan eta zer ateratzen den Zubietatik. Denok adostasun batera helduz gero, lorpen handia izango da”, adierazi zuen. Herri Batzarreko kideak, baita Usurbil eta Donostiako alkateak ere bazkari batera gonbidatu zituen, “telefonorik eta agendarik gabe”, eta hitzordu hau egin ahal izatea biziki eskertuko lukeela adierazi zuen, lasai hitz egiteko, baina batez ere erabakiak hartzeko.

# Eneko Goia: “Zubietak donostiarrengan aberastasun bat suposatzen du”

**B**i urteotan Herri Batzarrak eginiko lana esker-tu, zoriondu eta aitortu nahi izan zien Donostiako alkate Eneko Goiak. “Ez da lan erraza, denbora eskatzen du eta seguru aski askotan hase-reak, eta inpotentzia ere egon dira”, adierazi zuen.

Zubieta bezalako errealitate bat izateak Goiaren esanetan, donostiarrengan “aberastasun bat suposatzen du. Kasu askotan ulertzen zaila izaten den aberastasuna, bi herriren artean partekatzen dugu ardura eta herri kontseilu bati erantzuna ematea ez delako erraza”. Donostiako Udalarik Zubietako errealitateari aurre egitea kosta egiten zaiola aitortu Goiak eta egoera hau eraldatzeko borondatea agertu zuen. “Bi urteotan saiatu gara, ez dugu asmatu askotan, ez dugu lortu niri behintzat gustatuko litzai-



Eneko Goia, aurreko igandean Kaxkapen egin zen ekitalditik ateratzeko unean.

dakeen bezain urrun iristea bide horretan, zuen eta Usur-

bilgo Udalaren eskutik. Esperodut, geratzen zaizkigun bi ur-

teotan, bide horretan aurrera egiten gehiago asmatzea”.

## Xabier Arregi: “Zubietak etorkizunari begira bere burua gobernatzeko eredu horretan sakondu beharra du”

**H**erri batzarrak egiten duen lan zaila esker-tu zuen Usurbilgo alkateak, erakundearen beraren beharra azpimarratzearekin batera. “Sekula baino beharrezkoagoa ikusten dut herri honek aurrera egingo badu”, zioen Herri Batzarrari buruz. Zubieta, “udalerriz ez den herri bat” dela aitortuta, “Zubietak etorkizunari begira bere burua gobernatzeko eredu horretan sakontu beharra du”.

Bide horretan gainera, Zubieta bitan banatua egoteak, “eskatzen du administratibo-

ki nahiz bi udalerrietan banatua egon, ahalegin berezi bat Zubieta modu egoki batean kudeatzeko”. Eremu honetan bada zer hobetarik Usurbilgo alkatearen esanetan. Bi udal-lek Zubietaren tratamenduari lotuta dituzten barne arautegiak berrikusi beharrak daukela uste du, arautegiok egunerokoan praktikara eramatea kosta egiten zaiela aitortuta. “Nahiko nabarmena da gai batzuetan koordinazio edo planifikazio eza”, zioen uztailaren 9ko ekitaldian.

Horren adibide gisa jarri zuen aurreko astean, erraus-

tegirako gasa sartzeko lanekin Zubietako herri bidean gertaturikoa. “Koordinazio ez nabarmen bat izan da, herritarrok nozitu duzuen eta horrek agerian uzten du beste behin, ze zailtasun ditugun halako egoeren aurrean, egoki erantzuteko”, azpimarratu zuen Arregik.

Lurralde antolamenduan ere arazo latzak daukela gaineratu zuen. “Gaur Zubietan badago galdera potolo bat mahai gainean, zubietarrok erantzun beharrekoa. Zer nolako Zubieta nahi dugu etorkizunean? Zer egin nahi dugu gure lurrekin, baliabideekin?”, galdetu zuen.

### “Zubietarren borondatea errespetatzea dagokigu”

Galdera hauei zubietarrek erantzun behar dietela azpimarratu du. Ez dela zilegi, “bi udalok gure ziliborrari begira aritzea, edo udalez gaindiko administrazioak lurralde arloko plafinazioak egiten aritzea, zubietarren iritzia aintzat hartu gabe”. Alde horretatik, Usurbilgo eta Donostiako udalei “zubietarren borondatea errespetatzea” dagokiela esan zuen, irtenbide adostu baten alde lan egiteko prestasuna erakustearekin batera.



**Klik! batean**

## **Bizia eta garbia**

Azkarra izan zen San Fermin eguneko entzierroa. Minutu gutxi batzuk nahikoak izan zituzten Udajolas ganadutegiko zezenek frontoira heltzeko. Bidean ez zuten inor adarkatu.

Argazkia: Ion Markel



# “Egoera prekarioan

**F**isikoki hor dagoen arren zutik, Haur Eskolara bidean, Aranerreka ondoan, jabetza-erregistroan ez dago haren arrastorik. Puntapax Gure Etxea ez da existitzen. Ulergaitza dirudien egoera zail honetan bizi dira eraikin honetako lau etxe jabeak.

Pairatzen ari diren arazoa aspalditik dator. 2001ean Usurbilgo Udala hirigintza plan bat bideratzekotan zela jakinarazi zien bizilagunoi. “Hor hasi zen dena”, oroitzen dute. “Lur hauek orduan landa-lurrak ziren. Urbanizagarriak izateko plan partzial bat egin behar zen”.



Pairatzen ari diren arazoa aspalditik dator. 2001ean Usurbilgo Udala hirigintza plan bat bideratzekotan zela jakinarazi zien bizilagunoi. “Hor hasi zen dena”,

## Hitzarmenetan katramilatuta

Prozedura honen baitan, 2006an jabetza-erregistrotik kanpo geratu zen bizilagunon etxebizitza. 2008an hitzarmen bat sinatu zuten gai honetan inplikatuak dauden hiru aldeek; hau da, bizilagunek, Udalak eta etxebizitzon enpresa eraikitzaileak. Hitzarmen hartan, 2013rako Olarriondon etxebizitzak eraikiko zirela eta bizilekuotan ostatu emango zitzaizela adostu zen. “Bestela,

**BIZILAGUNAK**  
**“Egungo bizilekua uztearen truke, diru kopuru bat edo etxebizitza bat jaso behar zuten etxe honetako bizilagunek. Ez bat ez beste ez zaie eman ordea”**

480.000 euroko abal bat emango zitzaigun”, azaldu diote bi-

zilagunok NOAUA!ri.

## Ez dirurik, ez etxerik

Honenbestez, egungo bizilekua uztearen truke, aipatu diru kopurua edo etxebizitza bat jaso behar zuten trukean herritarrok. Ez bat ez beste ez zaie eman ordea. “Abala ez digute eman, sinatzerakoan inork ez zuelako dirurik jarri”, adierazi digute bizilagunok. Eta Olarriondon

2013rako aurreikusiak zeuden etxeak, bistan denez ez dira eraiki. Ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran hain zuzen, Olarriondon eta Ugartondon 168 babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko 2007an udalbatzak onartutako esleipena bertan behera utzi zuten, Ugartondon eraikitzeakoak dituzten 92 etxebizitza esleitzeko oinarriak onartzearekin batera.

## Enpresa eraikitzaileak zor bat du beraiekin eta zor hori betearaztea eskatzen dute

**O**rdezko etxerik ez, dirurik ezta eta bizi diren etxea, geroz eta zaharkituagoa, jabetza erregistroan ez da existitzen. “Egoera prekarioan bizi gara”, adierazi diote bizilagu-

nok NOAUA!ri. Jabetza erregistroan lur eremu bat baino ez da agertzen, eta lur eremu hori Jauregizar etxe eraikitzaileak bereganatua du 2006tik. Lau jabe ditu etxeak, bizilagunak daude bertan.

## Oso kezkatuta bizi duten egoerarekin

Oso kezkatua daude bizi duten egoerarekin. Egoera honi konponbidea ematea eskatzen dute. Urte luzez egin duten moduan, berriz bildu nahi dute

Udalarekin eta enpresa eraikitzailearekin, konponbideren bat ematen zaien zehazteko. Argi dute enpresa eraikitzaileak zor bat duela beraiekin eta zor hori betearaztea eskatzen dute.

# bizi gara”

## Hitzarmena betearazteko eskaera

Orain arte, Udalak bere alde-  
tik eskaini dien konponbidea,  
etxea bera berriro bizilagunon  
izenean jartzea dela diote.  
Baina ez dute konponbide bi-  
deragarri gisa ikusten. Batetik,  
2008an sinatutako hitzarmena  
indargabetuta geratuko litzate-  
keela uste dute. Etorkezunean  
gainera etxea bera ere desager-  
tuko dela aurreikusten dute.  
Honez gain, ekarriko lizkieken  
gastu ekonomikoak daude.  
Etxea berreskuratzeko ordain-  
du beharreko eskriturez gain,  
“etxe honen urteotako galerak  
zeinek ordaindu behar ditu?”  
galdetzen dute.

Legalki existitzen ez den  
etxebizitza zaharkitua, denbo-  
ra pasa ahala geroz eta egoe-  
ra okerragoan dago, eta ezin  
konpondu gainera, baimena  
eskuratzeko modurik ere ez  
baitute. Etxea ez baita “ existi-  
tzen”. “Ez digute inolako ber-



Legalki existitzen ez den etxebizitza hau zaharkituta dago, denbora pasa ahala geroz eta egoera okerragoan dago.

merik ematen. Hemen egon  
gintezke beste urte mordo ba-  
tez, etxea gainera etorriko zai-  
gu”, adierazi diote NOAUA!ri.

Bizilagunok argi dute, 2008an  
sinatua duten hitzarmena be-  
tearaztea eskatzen dute; hi-  
tzartutako bizilekua edo dirua.

“Ezin digute utzi hala”. Bizi-  
lagunok, ekainaren 27ko udal  
osoko bilkuran izan ziren bizi  
duten egoera azaltzen.

## Ugartondoko etxebizitzetan izen ematea zabalik

Eremu horretan eraikiko  
diren babes ofiziale-  
ko 46 etxebizitzetan eta  
beste 46 etxebizitza tasatuen  
zozketarako izen ematea za-  
balik dago jada uztailearen  
27ra arte udal erregistroan.  
Gogoan izan, ekainaren 27an  
egindako osoko ohiko bilku-  
ran 92 bizilekuon esleipene-  
rako oinarriak behin betiko  
onartu zituela aho batez  
udalbatzak. Oinarri berri,  
uztailearen 7ko Gipuzkoako  
Aldizkari Ofizialean edo  
usurbil.eus atarian jaso de-  
zakezue.



Babes ofizialeko zein etxebizitza tasatuen zozketarako izen ematea uztailearen 27ra arte egongo da zabalik.

# Bertsotan agurtu zuten ikasturtea

**B**aten faltan bi bertsopaper txapelketa antolatu dituzte igaro berri dituzte herriko jaiei begira. LHko ikasleen arteko lehiaketan, Oier Zubigarai izan zen txapel-dun eta Enara Olaetxea txapel-dunorde. Zorionak!

Aurtengo jaietan, beraz, kategoría bakoitzeko bina sari banatu dituzte. 16 urtetik gorakoan arteko 41. Bertsopaper Lehiaketan Jon Aizpuruak irabazi zuen txapelketa. LHko ikasleen artean sustariko lehiaketan, lehen saria Oier Zubigararentzat izan zen eta bigarren saria Enara Olaetxearentzat. Zorionak!



Bertsolaritza eta ahozketasuna lantzen aritu den ikasle taldeak ere, bertsotan agurtu zuten ikasturtea.

## 1. saria: “Udako oporrak”

Egilea: Oier Zubigarai Portu.  
Doinua: “Maritxu nora zoaz”.

Ikastola aspergarri  
guri iten zaigu  
Lanak egin eta egin  
ibiltzen gara gu  
Oporrak iristea  
guk merezi dugu  
Jai egunak hasteko  
gogoan daukagu

Oporrak hasi dira  
festara bagoaz  
Autotxoketako gu  
gaude bai gogoaz  
Disfrutatu ezazu  
festaren gozoaz  
Hau dena bukatuta  
DBH-ra goaz

## 2. saria: “Usurbilgo txokoak”

Egilea: Enara Olaetxea Usabiaga.  
Doinua: “Pello Joxepe”.

Laurok, ikastolan ta frontoian  
pasatzen dugu ederki  
beste aldetik kaleak daude  
adibide Erreka Txiki  
Agina, Txokoalde ditugu  
nahiz egon pixkat urruti  
Orduan zein da leku onena?  
Usurbil guztia noski.

Txoko politenak hemen daude  
hau da, Usurbilek ditu  
Gu lagunekin geratzen gara  
eta hauek bisitatu  
Zuhaitzak moztu ta moztu baina  
ez guri hauek puskatu  
Denak diru leku politenak  
baina ezin bat zehaztu.

## Etxalar-Ibardin ibilbidean barrena



Uztailaren 9an, argazkiko mendizale taldeak Etxalartik Ibardinerainoko “etapa gogorra” osatu zuten. “Larrun mendiari bira emanaz. Ondoren, Kermanek prestatutako bazkari oparoaz gozatzeko aukera izan genuen”, Andatzako kideek aditzera eman digutenez.



# Jaietako bertso-paper onenak

**E**kainaren 29an, frontoian ospaturiko bertso saioaren amaieran eman zituzten ezagutzera epaimahaiak hautaturiko bertso-rik onenak. 41. Bertso-paper Lehiaketan Jon Aizpuruak irabazi zuen txapelketa, Beñat Irazusta izan zen txapeldunordea.

## 1. saria: "Parisetik ama"

Egilea: Jon Aizpuru.  
Doinua: "Gure lurreen hedatua da".

Hogeitahiru urte badira  
Munduratu nindutela  
Amatxok dio gau luze eta  
euritsua izan zela.  
Aurrekoekin bezela  
Bi masailak mela-mela  
Zortzigarrena izanagatik  
Bere errege nintzela  
Ta orain hazi garela  
Ume-moko ez naizela  
Non du munduak gure amaren  
Altoak zuen epela?

Osaba zenak ekarri zuen  
Egun baten oparia  
Telebista bat, zahar xamarra  
Huraxe zen miraria  
Bizitzaren gidaria  
Ispilu eder garbia  
Beste mundu bat bazegoela  
Esaten zigun argia  
Europarako haria  
Saltzen zigun dendaria  
Uhinek zenbat ixiltzen zuten  
Ez zen horren nabaria.

Zortzigarrena izatearen  
Testigantza okerrera  
Anai guztiek etxea utzi  
Ta han geratzearena.  
Mauritania aurrena  
Maroko dago hurrena  
Europarako jauzia ez da  
Kolpean egiten dena  
Bazen zer bait falta zena  
Inork esan ez zuena  
Abiatu bai baina sekula  
Iritsi ez zenarena.

Eta hainbeste fumatzen zuten  
Iparraldeko pahotsa  
Nork ez du entzun "zatoz laguna"  
Ozen zioen ahotsa  
Amari agur mingotsa  
Bizi berri baten poza  
Basamortuan egonagatik  
Miseria hain da hotza  
Arropaz betea poltsa  
Eta amets ez bihotza  
Baina txanponak bi alde ditu  
Bizitza ta heriotza

Autobus zahar erdoildu baten  
Mila soinu belarrian  
Erdibituko ote zen beldur  
Saharar mortu handian  
Soldadu haien begian  
Diru xoxen egarrion  
Peaje extrak ordaintzen ziren  
Behingoz ailegatu nahian  
Behin Europa atarian  
Han, itsasoa erdian  
Hamaika amets amaituko zen  
Gibraltarreko hegian

Hilabetetan zain egon ginen  
Pasa beharraren zama  
Miseri asko pasea nago,  
Zertan ezkutatu ama!  
Polizi ta aduana  
Olatutzarren laztana  
Itsasoaren sakonak gorpu  
Askoren zama darama  
Iristean non da lana?  
Non agindu zuten dana?  
Etiketa bat jarri didate  
"beltza eta musulmana"

Oroitzen ama nola Idrissak  
Idatzitako kartetan  
Zenbat gutizi bete zituen  
Han zeramatzan urtetan  
gu haiekin ametsetan  
ikusi\_ezaren penetan  
orain Parisen elkartu eta  
limosna\_eske kaleetan  
lotan besteren etxetan  
zazpi urtez gezurretan  
iada hain zaila zait jakitea  
noiz ari zaidan benetan.

Gogoratzen naiz ume ginela  
Aholku hau zuregandik  
Etxean zegon apurra hartu  
Ta jarraitzeko bertatik  
Nork bere nortasunetik  
Herri hau zela hain polit  
Itxuran zer bait onegi bada  
Gezur bat zela atzetik  
Kasu egin banizu nik  
Amets guztien gainetik...  
Europa ez da gauza berdina  
Paris edo Dakarretik.

## 2. saria: "Nere barrenak hustutzera datozkit (Ugarte baserria)". Egilea: Beñat Irazusta.

Nere zainetan, gora urtetan  
nabaria dut benetan.  
Azal ximurra ta garezurra  
soildu zaiten (te)iletan.  
Ne(re) ha(r)tz hezurak ederki daude  
eta bihotza det sutan.  
Nik egunotan pasa dedana  
kontatu nahi det auzo(e)tan.

Zenbat bizipen, eta etsipen  
urte luze hau(e)tan zehar.  
Tolare nintzan, ostatu gero  
premitara moldatu behar.  
Bakardadia etzautziakin  
segittuan (eg)in nintzan zahar.  
Orain ardatza zuzendurikan  
gazte bihurtu naiz azkar.

Urte oparo, hauek igaro  
izan da bizi, badakit.  
Hestean neuzkan zakar kondarrak  
desagertuaz errotik.  
Nere sabela dantzan egon da  
garbi ta alai barrutik.  
Orain kolpeka nere barrenak  
hustutzera badatozkit.

Nere teilape, gaurdaino epe  
sagar bezainbat istori.  
Maitasunetik, gozo-gozotik  
edana izan dut lori.  
Gaztetasunaren gazitikan  
prexkatuz zuoi danori.  
Gaurkoa bezain mikatzik behintzat  
sekula etzen erori.

Berriz bakarrik, ta honetan larri  
goitik behera hustu naute.  
Teila garundik oinariraino  
odolusturik naukate.  
Bizitza zer da? Haiek eztaude,  
haiek orain ni gabe.  
Berriro osa al nintekeen  
ere ez didate galde.

Haritz eder bat, ni bezain zabal  
elkarri besarkaturik.  
Nere babesak, bere itzalak  
mantendu gattu loturik.  
Hankapean sustraiak zaintzen  
zihardutenak uxaturik.  
Osatutako kate zikloa  
gelditu zaigu mozturik.

Burokraziaz, dilijentziaz  
bere paperak eta tranpak.  
Lege legalak ezin zeharka  
gizalegiaren langak.  
Nere kaskuan zulo bat zala  
ta prest nigana so armak.  
Nere barruko mugimendua(r)i  
moztu nahi dizkie hankak.

Erasotzaile, edo hiltzaile  
ikusi nahi nigan huntza.  
Atea zabal ta zaindu nauna  
kanpokalderuntza bultza.  
Ez n(ag)ola ondo esatiakin  
utzi didazue hutsa.  
Bihotza dunak gaixo denari  
ematen dio laguntza.

Hau paradoxa, haien pahotsa  
marka da pasatu dana.  
Txin-txin hotsaren obsesioak  
garatu du sator lana.  
Berriro ere etxe-negozio,  
berriro kontraesana.  
Hutsik daudenak usteltzen utzi,  
hustu bizia bazina.

Geroa beltza, ez da erraza  
datorrena irudikatzen.  
Ne(re) horma artean egunerokua  
zuenarentzat mamitzen.  
Tresna eder hau gabe nolako  
etorkizuna da josten.  
Euskarri gabe utzi zayonai  
ez daki oreka eusten.

Buru tente, aurrera erne  
orain ezin ze(r)ate makur.  
Aurrera beha, geldi ez gera  
datorrenarenan beldur.  
Aterpe berri batekin topa,  
jarri martxan zuen aitzur.  
Han bildutako uzta izango da  
garaipen berrien ikur.

Nere tristura, zuen ardura  
auzoa eta herria.  
Jakinan gañen zerade orain  
gertatutako berria.  
Nere itxura txarra zala ta  
sartu nahirikan ziria.  
Gustoko etzun bazka aparte,  
lasayo dago zerria.

# Lehen Puntu Txapelketa antolatu dute Zubietako jaietan

Uztailaren 24tik 31ra ospatuko diren festen baitan antolatu dute ekimen berri hau. Parte hartzeko egin beharrekoa oso erraza da.

“Gustukoa al duzu zuk bertso-larritza?” eta “Nola ikusten duzu zuk gaur Zubietako?” puntuetako bati edo biei eta nahi beste aldiz erantzun paper mutur batean. Paper zati horren atzealdean izen abizenak eta telefono zenbakia idatzi eta Alamandegin, Barazarren eta jaietako txosnan egongo diren bertso-kutxen barruan utzi.



Sari banaketa uztailaren 29ko sagardo dastaketaren baitan egingo da, eguerdiko 13:00ak aldera.

## Sari banaketa, uztailaren 29an

“Erantzunak irakurriko ditugu eta, zorte apur batez, baita saritu ere!”, halaxe iragarri dute jaietako antolatzaileek. Sari banaketa uztailaren 29ko sagardo dastaketaren baitan egingo da, eguerdiko 13:00ak aldera.

## Sariak

- 1-Txapela eta sari berezia.
- 2-Bizitza aldatzeko aukera eta sari berezia.
- 3-Aratz jatetxean bazkaltzeko aukera eta sari berezia.

## Zubietako jaiak, uztailaren 24tik 31ra

### Uztailak 24, Astelehena:

#### Mozorro Eguna

18:00 Jaien hasiera, txupinazo eta Zubietarren IV. Argazki herrikoi erraldoiarekin, txalaparta doinuez alaituta.

Segidan Txosnen irekiera eta “fotokola”.

21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.

00:00 Egan.

02:00 Joxe Replay.

### Uztailak 25, Asteartea:

#### Santio Eguna

09:00 Esnadeia Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

10:30 Meza Nagusia. Ondoren Hamaitakoa eta soka dantza.

18:00 Emakumeen pala partida, Errebote Plazan:

Perurena - Arrillaga

San Sebastian - Erasun.

Jarraian Buruhandiak.

19:00tan Patxi Ta Konpania.

### Uztailak 26, Asteazkena:

#### Oilasko Biltzaile Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen irteera, trikitixa doinuekin alaituta.

14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

### Uztailak 28, Ostirala:

#### Umeen Eguna

10:00 Jolasen hasiera.

13:30 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta postrea eta sorpresa antolatzaileen esku.

16:00 Twister erraldoia.

17:00 Txokolatada eta buruhandiak.

18:30 Apar festa.

19:30 Sardin eta piper jatea.

22:00 Bertsolariak: Ane Labaka, Beñat Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze. Gai-jartzai-

lea: Amaia Agirre.

### Uztailak 29, Larunbata:

#### Jubilatuaren Eguna

09:30 Meza.

12:00 Sagardo dastaketa eta pin-txoak Errebote Plazan.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Barazar Jatetxean.

14:00 Paella prestaketaren hasiera. 15:00tan Paella jatea.

18:00 Burrumba Elektrotzaranga.

23:30 Zaparra taldearen kontzertua. Ondoren Laiotz.

### Uztailak 30, Igandea:

#### Gaupasa Eguna

16:00 Mus txapelketa (15:30ean izen ematea).

16:30 Gaztetxoan antzerkia Kaxkapen.

17:30 Toka txapelketa.

00:00 Kontzertuak: Odolaren

Mintzoa eta Gozategi. DJ Arosekin goizaldera arte luzatuko da gaua.

### Uztailak 31, Astelehena:

#### San Inazio Eguna

09:00 Zikiro prestaketaren hasiera. 10:30 Meza.

11:30 Zubietarren arteko errebote partida.

14:00tan Zikiro jatea.

18:00tan Herriko gaztetxoaren eskutik Joko Garbi erakustaldia Errebote Plazan.

19:00 Emakumezkoen erakustaldia Herri Kiroletan: Aizkolariak: Aston-

doa (Zeanuri) eta Etxaburua (Zizurkil). Harri-jasotzailea: Etxeberria

(Orio). Ondoren Buruhandiak. 00:00tan Herriko jaien amaiera

traka eta suziriekin.

Amaitzeko, Musika txosnan.

\* Datorren asteko NOAUA!n eman-go ditugu xehetasun gehiago.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**ESKAIOLA eta PLADUR**

Joxean Elorza  
**699426042**

USURBIL

**ZALDIGAIN**

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

# Benasqueko asteburu pasarako izen ematea, uztailaren 12ra arte

Iaz bezala, irailaren 9 eta 10eko astebururako antolatuta du Andatza M.K.T.-k, urtero egin ohi duen Pirinioetako asteburupasa. “Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3.375 m) egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu”, berri eman dute antolatzaileek. Izen ematea ixtear da (uztailaren 12a, azken eguna). Hemen xehetasunak:

■ Egunak: irailak 9, 10.

■ Ibilbidea:

-Irailak 9: “6:00etan Usurbildik abiatuko gara autobusez. Bidean geldialditxo egin ondoren, Benasqueko bailarako Eriste herrira iritsiko gara, Angel Orus aterpera abiatzeko”.

-Irailak 10: “Angel Orus Aterpetik Posets-eko gailurra egiteko asmoz abiatuko gara. Ondoren Eristera jaitsiko gara autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera iristeko”.

Izen ematea: uztailaren 12ra arte.

■ Prezioak:

-Andatzako bazkideek: 36 euro FEDME gehigarria dutenak; 45 euro ez dutenak.



Iaz, Ordesan izan ziren. “Aurten Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3.375 m) gailurra egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu”.

Argazkia: andatzamendizale.info

-Andatzako bazkide ez direnek: 61 euro FEDME gehigarria dutenak; 70 euro ez dutenak. Ordainketak, kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak. Izen emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte. Lehentasuna

Andatzako kideek izango dute. -Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Komenigarria da izapidez ahalik eta azkarren egitea”.

**Informazio gehiago:**

[www.andatza.com](http://www.andatza.com)

[andatza@hotmail.com](mailto:andatza@hotmail.com)

## Agurtzane Alkorta, jaietako errifa zozketan saritua

Pagazpe Pilota Elkartek jaietan eginiko errifa zozketako zenbaki saritua 11.863 zenbakia izan zela berri eman genizuen aurreko astekarian. Aipatu elkarteak helarazitako ondoko irudian ikus dezakezue, agertu da saritua: Agurtzane Alkorta.

**Urdaiazpikoa opari**

Esku artean duen urdaiazpiko ederra etxeratu zuen Agurtzane Alkortak.



11.863 zenbakiari esker urdaiazpiko bat tokatu zitzaion.

## Igeriketa ikastaroak Oiardo kiroldegian

Berrikuntzak izango dira 2017-18 denboraldiko igeriketa ikastaroetan. 6 maila ezberdinetan banatuko dituzte eta aurten ikastaroan parte hartu duten ikasleen maila monitoreek ezarriko dute. Uretan soilik jolasean aritu nahi duten haurrentzako ur jolasak ere eskainiko dute. Aurten ikastaroren bat egin ez dutenek, uztailaren 11 eta 12an igeriketa froga egin behar zuten.

### Izen-ematea, uztailaren 17ra arte

Izen ematea uztailaren 17an zabalduko dute. Inskripzioa haurraren guraso edo tutoreek bideratu ahalko dute soilik. Argibide gehiagorako, hauxe emaila: [usurbilbpx@gmail.com](mailto:usurbilbpx@gmail.com)



Inskripzioa haurraren guraso edo tutoreek bideratu ahalko dute soilik.

## Emakumeen arteko pala partida

**Uztailak 25 asteartea**

Arratsaldeko 18:00etan Zubietako Errebotte Plazan:  
Perurena - Arrillaga  
San Sebastian - Erasun

## Emakumeen arteko herriko kirolak

**Uztailak 31 astelehena**

Arratsaldeko 19:00etan Zubietako Errebotte Plazan:  
Aizkolariak: Astondoa (Zeanuri) eta Etxaburua (Zizurkil).  
Harri-jasotzailea: Etxeberria (Orio).

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosi nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 getakoa etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia

arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurren 10ean. 620024663

Garbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 65795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Astebururako langile bat behar dugu Laukoten okindegian. Bidali kurrikuluma helbide honetara: eelorza202@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska

edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrerara altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Emakume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gautz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gautetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrak emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesez goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gautetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627



## Zorionak Martin!

5 urte jada!! Ongi ospatuko dugu zure urtebetetze eguna lagunekin eta familiarekin.



## Zorionak Noa!

Gure sorgin txikiak datorren larunbatean 3 urte beteko ditu. Ondo ondo pasa eta ospatuko dugu!!



## Zorionak bikote!

Aurten ere bizkotxo pila bat jango ditugu. Ondo pasa zuen eguna, muxu pila bat etxekoan partez.



Lur 6, Aitzol 11 = Mila zorion!!

## Heriotzak

Kontxita Tapia  
Ayestaran  
89 urterekin hil zen  
uztailaren Sean  
Aginagan



**OHARRA:** 2017ko uztailaren 21ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: uztailaren 17an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelheenetik ostirale-  
ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, or-  
duka, gauetan... edoizen modu-  
tan. Pertsona helduak zaintzen,  
garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia  
eta esperientziarekin eskaintzen  
da. Pertsona helduak edo umeak  
zaintzeko edo garbiketan lan egite-  
ko. Irterna moduan, orduka edo  
gazez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lan-  
nean hasiko nintzake. Pertsona  
helduak edo umeak zaintzen edo  
garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean,  
120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da  
garbiketa egiteko orduka edo goi-  
zetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka  
lan egiteko. Etxeak garbitu edo  
adineko pertsonak zaintzeko. Tel.  
687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka:  
619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo  
sukaldari bezala (euskal sukaldear-  
en ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxee-  
tan ilea orrazteko eskaintzen naiz.  
Aproposa pertsona helduentzat,  
edo etxetik atera ezin duenaret-  
zat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo  
garbiketa lanak egiten lan egingo  
nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan  
egingo nuke, pertsona helduak  
zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiki-  
tan, umeak edo pertsona helduak  
zaintzen edo sukaldetan lan egin-  
go nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil.

Interna moduan eta orduka.  
Pertsona helduak edo umeak zain-  
tzen edo garbiketa lanetan. Bere-  
hala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel-  
duak zaintzen edo etxeak garbi-  
tzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak  
edo umeak zaintzen lan egingo  
nuke. Paperak egunean. Interna  
moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen  
gaztea, geriatría laguntzaile  
tituluduna, tabernak garbitzen  
eta sukaldari laguntzaile gisa  
aritutakoa, orduka edo interno  
moduan garbiketa lanetarako  
edo helduak zaintzeko prest. 669  
679 186

Emakumea eskaintzen da arra-  
tsaldeetan hiruzpalau orduz  
etxeko lanetan aritu edo adine-  
koak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta  
paperekin, orduka lan baten  
bila: plantxa lanetarako, haur  
eta adinekoen zaintza, garbiketa  
lanak, tabernan arraskan aritze-  
ko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo  
umeak zaintzeko eskaintzen  
naiz. Usurbilgoa naiz eta errefe-  
rentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna,  
helduak zaintzeko eta etxeko zer-  
bitzurako prest, baita garbiketa  
lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jate

batean harraskan aritzeko edo  
pertsona helduak zaintzen. Pa-  
perak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko  
ikasleei klase partikularrak emate-  
ko eskaintzen da. Ingeniaritza  
kimikoan graduatua, ingeles mai-  
la altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak  
zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan  
edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati  
eta Ane bakarkako partikularrak,  
arreta hizkuntzen sakontzea eta  
beste zenbait lanketa eskaintzen  
ditugu. Pedagogia eta beste hain-  
bat ikasketa. Deitu edo bidali me-

zua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen  
da, astean bi edo hiru egunetan  
garbiketa lanak egiteko, goizez  
edo arratsalde, irailetik aurrera.  
Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da  
uda garaian baratzako lanak egi-  
teko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak  
edo umeak zaintzen. Interna  
bezala, orduka edo ospitalean  
egoteko. Tel. 676 188 411.

#### BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko ni-  
tuzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira,  
graduatuak eta funda beltz ba-  
tean. Atxegaldeko erdiko kalean.  
Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Belarra mozteko makina elektrikoa  
(gutxi erabilia) eta enkortadorea  
salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arra-  
zakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi-  
ko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa  
eta 2 X 0,90 metroko neurriekin,  
salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-  
3 urteko grupokoa. Arroxa. 646  
305 658.

Pago egurra salgai (txinis-  
ko eta ekonomikoko egokia)  
627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira.  
Kontaktua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak,  
patineteak, liburuak... Garbi-  
gunean. Doan hartu daitezke.  
Astelheenetik ostiralera:  
10:15-13:00 / 16:00-19:00  
artean. Jai egunak ez diren lar-  
runbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

<b>Osteguna 13</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
<b>Ostirala 14</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Larunbata 15</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
<b>Igandea 16</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
<b>Astlehena 17</b>	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
<b>Asteartea 18</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Asteazkena 19</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

## Uztailak 13 - uztailak 23

<b>Osteguna 20</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Ostirala 21</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loloia 9. Lasarte
<b>Larunbata 22</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Igandea 23</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda uztaila

## 14 ostirala

- Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen. Uztailearen 31ra arte ikusgai.
- UEU-Jakin Jardunaldia Usurbilen (plaza denak beteta daude).

## 15 larunbata

- Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen. Uztailearen 31ra arte ikusgai.
- Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa. "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa", Josu Osaren eskutik. Potxoenean, 09:00etatik 13:00era.

## 16 igandea

- Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen. Uztailearen 31ra arte ikusgai.

## Larunbat honetan, "Sagarrondotik sagardora" ikastaroko saio berri bat

Josu Osaren txanda iritsi da. "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa" izeneko saioa eskainiko du larunbat honetan Potxoenean.

- Uztaileak 15 larunbata.
- 09:00-13:00, Potxoenean.
- Landuko den gaia: "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa".
- Hizlaria: Josu Osa.
- Izen ematea: 943 361 114 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) [alkartasuna.eus](http://alkartasuna.eus)



Larunbatean 9:00etatik 13:00era, Potxoenean.

## Joseba B. Lenoir, Miren Narbaiza eta La Basu, UEU-Jakin Jardunaldiaren Gaualdian

Udako ikastaroko plaza denak beteta daude. Uztailearen 13ko Gaualdia ordea, irekia izango da. Joseba B. Lenoir eta Miren Narbaiza arituko dira batetik, eta La Basu rap kantaria bestetik. Mikel Laboan egingo da kontzertua eta 22:00etan hasiko da.



La Basu rap kantaria.

### Datozenak

#### Usurbildik ere igaroko da "Udako Kalera Martxa"

Uztailearen 20tik 27ra, Gernikatik Lakuntzara Udako Kalera Martxa deitu da euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde. Etapaka osatuko den ibilbidearen baitan, uztailearen 25ean Getaria, Zarautz eta Hernani lotuko ditu 13 kilometroko martxak. Egun horretan beraz Usurbildik igaroko da.

"Ekimen honek bi helburu nagusi bete nahi ditu: batetik, gatazkak sortutako euskal errepresaliatu politiko guztiak Euskal Herriko kaleetara ekartzera (bide batez sinbolikoki, preso, iheslari eta deportatu guztiak udako jaietan murgiltzea); eta bestetik, jai-giroaz gozatzea", antolatzailerak jakinarazi dutenez. Etapa bakoitzaren amaieran, hainbat kultur ekitaldi izango dira.

Martxan parte hartzeko izena eman beharra dago. Txartelak ohiko lekue-tan eskuratu ahalko dira. Informazio gehiago [kalerakalera.eus](http://kalerakalera.eus) web orrian.



16:25ean trenez helduko dira Usurbilera.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

## 661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

# Laster oporretara goaz!

Uztailaren 21ean kaleratuko dugu ikasturteko azken Noaua!

Oharrik, zorion agurrik, albisterik...  
argitaratu nahi baduzu, ekarri edo bidali uztailaren 17a baino lehen.

erredakzioa@noaua.eus · 943 36 03 21



Kaixo Noauakide!

2017ko kuota kobraketa, **uztailaren 15ean** hasiko dugula jakinaz nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean bezala, 40€takoa izango da. Beraz, **40€ kobratuko zaizue** (ERRENTA AITORPENEAN HOBARI) datozen egunotan. Banku bidez kobraketa egiteko baime-na eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere.

## BAZKIDETZA

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrontean sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.

Hauxe da gure kontu korronteko zenbakia:

**Rural Kutxa: E503 3008 0259 11 3086496928**

Besarkada bat eta hurrengo arte,

NOAUA! KULTUR ELKARTEA

**noaua**

**OHARRA:** Errenta aitorpenean hobaria izateko, gurekin harremanetan jarri nortasun agiriaren datuak baieztatzeko.

943 36 03 21 • elkartea@noaua.eus • Bordaberri 3, behea USURBIL



# AISIA PLANAK

deskontuekin!



## OcioPlan

12€



BAZKARIA EDO AFARIA

ZINEMARAKO SARRERA

## PartyPlan

9,50€



VIPS SMART MENUA\*

ZINEMARAKO SARRERA



Glutenik gabeko aldaera eskuragai.

## SuperPlan

12€



TXIKIGUAY SARRERA  
DENBORA MUGAGABEA

ZINEMARAKO SARRERA

## BeautyPlan

23€



ILE-APAINDEGIA

MANIKURA

EKITALDI MAKILAJEA

www.urbil.es web gunean kontsultatu eta lortu itzazu, gure Bezeroenganako Arreta Gunean edo honen ondoko Totem interaktiboan.